



ELKARTASUNEZKO BERTSO SAIOA

Hurria-Sahara elkarteak eta Punttuka bertso eskolak antolatuta, Sahararen aldeko bertso saioa igande honetan. Basteron izango da eguerdiko 12:00tan hasita, lehen mailako bertsolariekin / 11

Aiurri.eus webgune berria

Gailu mugikorretarako bereziki egokitutako webgune berria aurkeztu du Aiurrik, Tokikomen eskutik. Edukiak gailu eramangarrietatik kontsumitzen dira, geroz eta gehiago / 16



"Oporrak bakean", Saharako haurrak hartzeko deialdi berria martxan jarri dute Andoainen / 9



Iñaki Goenaga ENBA nekazal sindikatuko lehendakariari elkarrizketa / 2-3



Maialen Gurrutxaga lasterkariaren bigarren postua Talaia bidea mendiko lasterketan / 13



www.aiurri.eus



Webgune berria udaberria iristearekin batera

Iñaki Goenaga urnietarra ENBAko lehendakaria da. **AIURRI**

“Gizartea baserritik geroz eta urrunago dago”

IÑAKI GOENAGA ENBA SINDIKATUKO LEHENDAKARIA

Oiamar baserrian jaio zen Iñaki Goenaga. Han hazi, hezi eta bizi da. 52 urtez, dagoeneko. Harro, bere ofizioa eta afizioa uztartuz: baserritarra.

Andoni Urbistondo URNIETA

Patxada handia dago Oiamar baserrian, bazkalostean. Siesta garaia, ziur aski, Iñaki Goenagarentzat, goizean goiz lanean aritua baita aziendako hiruro-

geita hamar behiak jezten eta zaintzen. Bere egunerokoa kontatu dio Aiurri astekariari, eta baserriaren etorkizuna kolokan dagoela nabarmendu du, garbi asko.

Nola hasi zinen baserrian lanean?

Benoa, bertan jaio nintzen. Etxeko mutila naiz. Hala tokatu zen, familiako zaharrena nintzelako, nahiz eta maiorazkoa eta antzeko kontuak galduak dauden egun.

Bere garaian, aita eta amarekin elkartea osatu genuen eta nire kabuz erabaki nuen baserrian geratzea. Ez naiz inoiz damutu. **Ikasketarik baduzu?**

16 urte arte eskolan ibili nintzen, Lanbide Hezkuntzako gradu ertain bat bukatu nuen, mekanikan. Gero soldadutza egin nuen urte eta erdi, eta orduz geroztik 35 urte baserrian.

Orain dela zazpi urte ENBA-Gipuzkoa sindikatuko presidente ere bazara. Nolatan?

21 urterekin EHNEⁿ hasi nintzen (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), baina 1991ⁿ ENBA sortu zen (Euskal Nekazarien Batasuna), eta bertan afiliatu nintzen. Azken zazpi urtetan presidente izan naiz. Norbaitek egin behar du, eta orain niri tokatu zait. Nik lana baserrian egiten dut, eta sindikatuaren bitartez gure kezka eta asmoak erakutsi edo jakinarazten ditugu gizartea eta administrazioaren aurrean. 28 urte daramatzat ENBAⁿ, baina sindikatuko funtzionamendua halakoxea da: gaur ni, bihar zu, eta antzera. Azken aldian, ezin iritsi gabilta, familiako zaharrena nintzelako, nahiz eta maiorazkoa eta antzeko kontuak galduak dauden egun.

Ze funtzio betetzen duzu presidentegisa?

Sindikatu gisa hainbat ekitaldi, bilera eta jardunaldietara azaldu behar izaten dugu. Bulegoan apenas egoten naizen. Hilean behin halako bilera bat egiten dugu, eta gero, sor daitezkeen kontuak. Aldundiak lege berri bat atera duela, edota aurrekontuez hitz egin, edo afiliaturen batek duen arazoren bat aztertzeko bilera egin... Irageanean dena zen korapilatsuagoa, tramite edo oztopo gehiago. Egun administrazio lanak ari nago doaz.

Zenbat zarete ENBA sindikatuan? Hiru langile daude: koordinatzailea, abokatu eta idazkari^tzako lanak egiten dituen langilea. Zuzendaritza Batzordean hamar bat lagun gaude, sektore ezberdinetakoak, eta afiliatu kopururi dagokionez, bostehun afiliatu edo izango gara.

Eta ze arazo ditu baserritarrak egun? Zer galdetzen dizuete?

Agiri kontuak, batez ere. Abokatu lanak, aholkularitza proiektu jakin bat garatu nahi bada ze erakundeetara jo... Batez ere erreleboaren kontua da gure arazo nagusia, soluzio zaila duelako, eta gero eta zailagoa, denborak aurrera egin ahala. **Nolakoa da egoera? Arduraturatuta sumatzen zaizu.**

Egoera nahiko larria da. Herri^ttarrek denbora libre^a nahi dute, urteen joan etorrian beste entretenimendu batzuk sortu dira... Baserrian bezala, langile autonomo direnak denbora librearen kontzeptuarekin borrokan dabilta. Ez dauka gaitasun ekonomikoarekin zerikusirik, askatasun gose horrekin baizik. Artzaintzan, Arantzazuko eskolarekin, egoera zerbait hobetzen ari da. Baratz kontuetan ere egoera ez da hain larria, baina behi eta esne ustiaketan aritzen garenon artean... egoera ez da ona.

Nolakoa da zure baserrian behi ustiaketan aritzen den pertsonaren egunerokoa?

Goizkeo 06:00ak aldera jaikitzen naiz, ukuilura joan, eta orain semeak ikasten ari direnez, nire bakardadean murgildu eta hiru bat orduz edo behiak robotarekin jetzi. Robotari esker beste zeregin batzuk egiteko aukera daukagu, malgutasuna ematen digulako. Medikura joateko, edo beste enkarguren bat egiteko. Behiak errutina jakin bat

eskatzten du: Hamabi orduz behin jetzi egin behar dela, hala egiten ez bada abereak antzeman egiten duelako. Ordua bata edo bestea izan, ez du garrantzirik. Behiak goizeko ordubietan, lautan edo seitan jetzi ditzakezu, baina bigarren aldiz jezten dituzunean, hamabi ordura izan behar du. Behiak jetzi ondoren, beste hainbat lan egin behar dira: garbiketa lanak, jana pres^tatu, belazeak moztu... 35-40 belar hektarea ditugu, lur sail propioak eta errentan hartzen ditugunak, gutxi gorabehera. Baina esandakoa, robotari esker, ez duzu zertan dena une berean egin beharrik.

Zenbat buru dituzu?

70 behi ditugu, 140 bat buru.

140 buru! Lehen kolpean kopuru handia dirudi, lan handia.

Benoa... Egun, dagoeneko lan fisiko gogorragoak badaude, honek daukana zera da, kontu bategatik edo besteagatik, ordu asko sartu behar direla, eta lotua dela. Orain dela mende erdi askoz gogorragoa izango zen, noski...

Eta esne bilketa, nola egiten da?

Esne bila bi egunez behin etorri izan dira orain arte, baina aurrerantzean egunero etorriko dira.

Ordezkapen brigadak ba al daude?

Bai. Nik oporretarako ez ditut erabili izan, bai ezkontza edo beste egun bateko konpromisoa izan dugunean. Oporrak behar izan ditugunean anaiak, edo semeek hartu izan dute ardura. Kaiku, Lurgintza eta Abelur kooperatibek eskaintzen dute zerbitzua, EHNE sindikatuak ere bai. Kontua zera da, paper gainean ikusita aukera ona dirudiela, baina gero ez da erraza zerbitzu hori hartzea. Aste batean baserri batera joaten dira, hurrengoan beste batera, eta baserri bakoitzak lanerako sistema bat du; ganadua mota batekoa, makinak bezala, eta baserriko nagusiak ere bere ohiturak eta beste izango ditu... Urte osoan lana ziurtatua duten hiru mutil badabilta, baina esandakoa, hara eta hona ibili behar dute, ez da erraza zerbitzu hori

"NIRE KABUZ ERABAKI NUEN BASERRIAN GERATZEA. EZ NAIZ INOIZ DAMUTU"

Iñaki Goenaga Oiamar baserrian jaio, hazi, hezi, bizi eta lanean aritzen da. **AIURRI**

kontratatzea. Nik neuk, egia esan, ez dut beharrik izan.

Etxean segidarik baduzula esan dit txori txiki batek. Hala al da?

Bai, Mikel semearekin. 19 urte ditu. Mekatronic edo mantentze lanak ikasten ari da, aurten bukatuko du, eta berarekin behintzat Oiamarren segida izango dugu. Ez da egun batetik bestera hartu duen erabakia, txikitatik sumatzen genion gustura ibiltzen zela baserrian. Harro sentiarazten nau, beste baserrietan laguntza behar duten hainbat lagun izan, eta etxean semeen laguntzarik ezin lortu baitabilta, kanpoan lanean ari direlako. Soldata eskaini etxean, eta ezezkoa eman, nahiago due^lako kanpoan jardun.

Beste bi seme dituzu, zer diote haiek?

Bai, Beñat eta Oier. Ingeniaritza ikasten ari da Beñat (21 urte), baina hark aspaldi esan zidan gauzak ondo egin behar dira: garbi, berak aurrena baserritik

kanpo probatu nahi zuela, ea zer zegoen, eta gero erabakiko zuela zer egin. Laguntza eskatu izan diodanean, dena den, beti eman izan dit. Oier oso gaztea da oraindik, 12 urte bakarrik ditu.

Behi ustiaketak bizitzeko ematen al du?

Ezer ez da behar adina ordaintzen. Ez esnea, ez haragia, ezta baratzeko produktuak ere. Gurean jakin izan dugu moldatzen, eta instalakuntza eta formazio kontuetan lan handia egin da. Ematen du, bai. Haragi ustiaketan baldin bazabilta, behi eta eremu kopuru handia behar da. Artzaintzan gaztak ematen du, ondo saltzen den produktua delako. Esnearen kasuan ekoiztu egin behar da, asko ekoiztu, egungo egoera ez delako orain dela 30 urteko berbera. Orain gauzak ondo egin behar dira: kalitatea, garbitasuna...

"GIZARTEARENTZAKO IRTENBIDE MERKEENA BASERRITARREI LAGUNTZEA DA"

Sektoreak ba al du politikarien, erakundeen babesa, laguntza?

Politikariez baino, ni gizarteaz mintzatuko nintzateke, orokorrean. Gipuzkoako jendarteak baserria, bertako produktuak nahi, goxatu, zaindu nahi ote duen erabaki beharko du, eta erabaki hori gizarte osoari dagokio, politikari edota erakunde jakin batzuei baino. Zer egin nahi du Gipuzkoako gizarteak herrialdeko baserrie^kin? Baserritarrok prest gaude aurrera egiteko.

Gizarteak baserriei buruz zer pentsatzen duela sumatzen duzu?

Esango nuke gizarteak pentsatzen duela baserritarren etorkizuna ez dela bere arazoa. Gizarteak lurralde bat nola zaindu ez dakiela esango nuke. Gu lur^rak, aziendak ematen duenetik bizitzen saiatzen gara, ahalik eta ondoen, noski. Eta gauza asko ez ditugu ondo egin,

"ZER EGINGO DU GIZARTEAK BASERRITARRA DESAGERTZEN DENEAN?"

baina belazeak berde ikusi nahi baditugu, edota mendira joan eta bidezidorrak garbi ikusi, hori norbaitek egin behar du. Gizartearentzako irtenbide merkeena baserritarrei laguntzea dela esango nuke. Zer egingo du gizarteak baserritarra desagertzen denean?

Eta nola aldatu gizarteak zuekiko daukan pertzepzio hori?

Hainbeste lan dago egiteko... nondik hasi beharko genukeen ere ez dakit. Baserria eta gizartea gerturatzen hasi behar dugu, gero eta urrunago baitaude elkarrengandik, zoritxarrez. Orain dela sei bat urte baserrietako Ate Irekien jardunaldiak egin ziren. Mugimendu dezente sortu zen, 600 bat lagunek edo parte hartu zuten, eta gehien harritu ninduen zera da, jendeak baserrian egiten denaz arrastorik txikiena ere ez daukala. Ezin sinetsita geratu nintzen egoera horrekin. Gure aiton-amonei ikusi genien irudia dauka gizarteak buruan, eta baserriaren etorkizuna bera auzitan dago.

Erakundeek, noski, izango dute egoera larri honen berri, ezta?

Azken hiru urteetan elkarlanean ari gara, Gipuzkoako Aldundia eta hainbat elkarterekin, gizartea eta baserriaren arteko urrutze hori nola murriztu aztertzen. Egoera Gipuzkoako Batzar Orokorretan aztertu beharko litzateke nire ustez, erakunde hori baita Gipuzkoa martxan jartzen duena.

Eta neurririk gabe... zer gerta litzateke?

Baserriko bizitza itzaltzen joango dela, erabat itzali arte.

Eta horrek ez al dauka erremedio-rik?

Ze erremedio, baina? Nekazaritzari bere balorea eman behar dio gizarteak, gugandik hasita. Pentsa, nik gure gurasoei entzuna da, baserrian, nik eta emazteak haurrak izan eta gutxira, nola esaten zuten, "hauek iristen direnerako, bukatuko dira baserriko lan denak, eta mesede ederra". Ni haurra nintzenean gurasoek ezer ez zeukaten, maizterrak ginen, eta egun, behintzat, Oiamar etxea gurea da. Bizimodua aurrera egiteko modua badugu. Egun irageanean baino askoz hobeto bizi gara, baina gu baino lehen baserria aurrera atera zutenen ikuspegi horrek erakusten du zerbaitek kale egiten duela...

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Gutun irekia Andoaingo PSE-EEri

Andoaingo PSE-EE alderdiari hondakinen inguruko akordiora batzeko eskatzen diogu. Andoaingo errefusaren edukiontzien irekiera astean 4 alditara mugatua dago, erabiltzaileak txartela erabiliz eguna eta momentua aukeratzen duelarik. Pixoihalak dituzten familiek irekiera gehiago egin ditzakete, hala eskatu badute. Irekierarako maiztasuna teknikariak zehaztu zuten arren (nor hobeto beraiek baino), etxean hondakinak ongi sailkatzen dituen orok jakin badaki astean 4 aldi errefusa botatzeko nahikoa eta sobera dela, hondakinen zati oso txikia baita errefusa.

Bestalde, hondakinen bilketa sistema berriak edukiontzi gehienen aldaketa ekarri du, aurrekoak egoera txarrean eta zaharkituak zeuden eta. Udaleko ia alderdi guztien oniritzia jaso du (EHBildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi, atxikitu gabeko zinegotziaz gain), PSE-EErena izan ezik.

Gipuzkoan zehar, irekiera mugatuko sistemaren eredu ezberdinak (astean 1, 2 edo 7 egunetara) onartu ditu alderdi sozialistak: Zumarragan, Urretxun eta Beasainen astean 2 egun zehaztutara mugatu dute errefusaren irekiera, Urola Kostan zein Debarbarren txartelarekin

mugarik gabe (emaitza zeharo ezberdinekin)...

Eta Andoainen, aldiz, ez dute onartzen teknikariak zehaztutako maiztasuna duen sistema berria.

Zergatik egiten du hori Andoaingo PSE-EEK? Zeren eta helburua kontuan hartzen badugu (Andoainen gutxienez %60ra iristea) ez zaigu ulargarria iruditzen sistema berria ez onartzea, irekieraren mugaketa zehatz batekin emaitza hobeak lortzen direla frogatuta dagoenean.

Urrutira joan gabe, otsailaren 11n martxan jarri zen edukiontzi grisaren itxierarekin, hondakinen %63,2ko gaikako bilketara ailegatu gara. Berriki Andoaingo Udalak emandako datua da. Emaitez erakutsi dute sistemaren ezarpenak frakzio guztietan eragin positiboa izan duela (birziklagarrietan nabarmen gora eta errefusa dexente behera). Horregatik, dei egiten diogu Andoaingo PSE-EEri. Bere jarrera alda dezan eta sistema berriaren adostasunera batu dadin. Denok batera lan egin dezagun emaitzen hobekuntzan.

Azkenik, martxoaren 30ean Zumea plazan 12:00etan egingo dugun edukiontzi grisaren ongietorri argazkian parte hartzera gonbidatzen ditugu andoaindar guztiak.

EKIMENA

“GURE PLAZA, GURE HIZKUNTZA” ANDOAIN



AIURRI

Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako ekitaldia

“Gure plaza, gure hizkuntza” izenburupean, Andoainen bat egin zuten Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Egunarekin. Martxoaren 26an jolasak eta

txokolate jatea antolatu zituzten Goikoplazan. Ekitaldira haur eta guraso ugari bildu zen. Jarduera Udalak eta Ongi Etorri ekimenak antolatu zuten.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz eteko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbisondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Golenia Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

ERROITZ

AIJATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Lehen egun hauetan bezeroek oso harrera ona egin digute"

ALEX ETA ALEJANDRO ANDOAINGO 97 TABERNAKO ARDURADUNAK

Erredakzioa ANDOAIN
Alejandrorentzat une honetan ostalaritza "bere bizitza" da. Duela bost urte hasi zen mundutxo horretan lanean, Ganbaran hasieran eta Olajaunan ondoren. Gogotsu dago abentura berrian, eta gogo hori bezeroek nabaritzea nahiko luke. Alexek Txalaka taberna-jatetxean trebakuntza handia jaso zuen, eta egitasmo berriarekin "oso pozik" dagoela aitortzen du.
Bien artean ekin diote "97 taberna" izeneko abentura berriari. Zumea plazan dago, eta aurreko astean ireki zutenetik jendetza hurbiltzen ari zaie. Hauexek beren lehen adierazpenak.

Irekiera ekitaldian jendetza bildu zenuten. Pozik egoteko modukoa da, ezta?

Bai, oso harrera ona egin digute bezeroek. Aurreko ostegunean jende piloa hurbildu zen. Malkogarriyak taldea zuzenean aritu zen, gainera. Adin guztietako jendea hurbildu zen, eta kristoren giroa sortu zen. Oso pozik gaude, egia esan, egin diguten harrerarekin.

Banan bana eskerrak ematea zaila da, baliatu Aiurri hurbildu zirenei eskerrak emateko.
Garrantzitsua zen guretzat hasiera ona izatea. Urduri geunden, ezjakintasun handiarekin. Baina gure



Alex eta Alejandro Andoaingo Zumea plazako 97 tabernako arduradun berriak. AIURRI

apustua ondo hartu dutela ikusi genuen, eta orain sentsazioak oso onak dira. Aurretik egitasmo ona dugula iruditzen zaigu.
Barraren atzean nortzuk egongo zarete lanean?
Alex eta Alejandro, gu bion esku egongo da ardura. Bi

"LEHEN EGUNETAN ESPERO GENUENA BAINO JENDE GEHIAGO HURBILDU DA TABERNARA"

laguntzaile izango ditugu, oraingoz: Naroa eta Aitor.
Ireki duzuenetik Zumea plazara jende gaztea hurbiltzen ari da. Espero zenuten horrelako harrera izatea?
Espero genuen, baina egia esan uste genuena baino jende gehiago hurbildu da. Eta ez

"GURE APUSTUA ONDO HARTU DUTELA IKUSITA, OSO SENTSASIO ONAK DITUGU ORAIN"

gazteak bakarrik, baita helduagoak diren beste bezero asko ere. Irekiera ekitaldian Hernaniko eta Amasa-Villabonako jendea ikusi genuen. Oso pozik gaude.
Lehenengo tabernarekin alderatuta, zertan bereiztuko da 97 taberna?
Beste giro bat sortu nahi genuen, hasiera hasieratik. Aurretik zegoen taberna girora gure inguruko jendea ez zen sartzen, eta guk taberna ireki bat egin nahi izan dugu.

Adinak ez digu inporta, denentzat egin nahi dugu lan. Musika ona, giro ona,... aukera horiek baliatu nahi ditugu.
Edarietan berezitasunak izango dituzuela jakin dugu...
Artisau garagardoa merkaturatu nahi dugu, eta dagoeneko hamar erreferentzia eskaintzen ari gara. Euskal ekoizpenak dira, Hernaniko eta Barañanako enpresetakoak. Kaineroan ere artisau garagardoa eskainiko dugu. Ardoei dagokionez, bospasei ardo txukun eskaini nahi ditugu. Zerbitzu ona eman nahi dugu.

Zein izango da zuen ordutegia eta egutegia?
Astean zehar, astelehenean atseden eguna izango da. Asteartetik ostiralera, eguerdiko 12:00tan ireki eta 00:00ak aldera itxiko dugu. Asteburuetan, berriz, goizeko 11:00tatik goizaldeko 01:00ak arte zabalduko dugu. Afaldu eta gero kopatxoa nahi duenari aukera hori eskainiko diogu. Eta hortik etxera joan daitezela, edo Txuri Beltzera (kar, kar...).

UDAL HAUTESKUNDEAK

Herme Gonzalez, PSE-EEko alkategaia Urnietan



Andueza eta Gonzalez. PSE-EE

Urnietako PSE-EEK alkategaia aurkeztu du, urnietarrentzat aski ezaguna dena: Herme Gonzalez. 2007an eta 2011n alkategai izan zen, eta 2019an sozialisten buru izango da berriro ere. Azken lau urteetan Consuelo Frutos izan da sozialisten bozeramailea.

Prentsa ohar bidez bidali zuten oharrean, Eneko Andueza PSE-EEko Gipuzkoako idazkari orokorrak eta Herme Gonzalezek Urnietarako egitasmoak aurkeztu zituzten. Herme Gonzalezek prest dagoela dio: "Egitasmo parte hartzaile eta errealista aurkezteko eta garatzeko prest nago. Eta hori aurrera ateratzeko esperientzia eta kudeaketarako gaitasuna duen lan taldea dut alboan". Besteak beste, gazteen aldeko politika aktiboak martxan jarri nahi dituzte. Baita adinekoentzat egoitza berria eraikitzea edota zaintzapeko etxebizitzak eskaintzea ere.

Azken urteotan udalgintzan aritu ez arren, Herme Gonzalezek ez du politikagintza alde batera utzi. Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzarakidea izan baita.
Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EEko idazkari orokorrak erronka ipini zion alderdikideari: "Urnietan EAJ-PNVren gehiengo osoarekin amaitu behar da. Urnietak bultzada berria behar du. Sozialistena egitasmo zehatza da, ezkerrekoa eta Urnietarekin konpromisoa erakusten duena. Herriko arazoei irtenbidea emateko talde prestua dugu".

Andoaingo eta Gipuzkoako ordezkari nagusiak Basteroko aurkezpen ekitaldian elkartu ziren. **Aiurri**

Indar erakustaldia

Mari Jose Izagirre EAJ-PNVko alkategaiak Gipuzkoako buruzagien babesa eta gertutasuna jaso zuen martxoaren 22an, Basteron egin zuen aurkezpen ekitaldian. Bide batez, ziklo berrirako lankide izango dituen kideen aurkezpena egin zuen

Amaia Senperena ANDOAIN

Markel Olano Ahalduen Nagusia eta Joseba Egibar Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea ondoan zituela, Mari Jose Izagirrek bere lantaldearen aurkezpena egin zuen. Aurpegi ezagun asko dau- de zerrenda berrian, alderdian ibilbide luzea egindakoak. Bai- ta aurpegi berri batzuk ere.

2018ko ekainean bere hauta- gaitza iragarri zuen bezala, sen- do eta gogotsu nabari zaio Iza- girreri. Andoainek bultzada, lidergotza eta eskarmentua behar dituela adierazi zuen, “EH Bil- duren egungo gobernuak era- kusten duen ziurgabetasuna, zalantza, eta anbizio nahiz erre- alismo faltaren aurrean”. Bere esanetan, alderdi bakar batek erakutsi du andoaindarren on- gizatea hobetzeko gauza dela eta izango dela, “eta hori EAJ-PNV da”. Agintaldi berrirako propo- samen zehatzak iragarri zituen, hala nola, “Andoaingo merka- taritza eta kaleak biziberritzea, liburutegi berri bat egitea, edo kalitatezko udal zerbitzuak ber- matzea”.

EAJ-PNVren alkategaiaren iritzi- z, bera hautagaitzak era- kutsi du andoaindarren konfian- tza osoa merezi duela. Horren bermea da “EAJ-PNVk azken lau urteotan egin duen oposizioa. Izan ere, konfrontaziotik eta populismotik urrundutako po- litika egin dugu, ekintzak eta proiektu zehatzak aurkeztuta. Inbertsio garrantzitsuenak EAJ- PNVren esku-hartzeari esker egin dira. Behar izan gaituzten guztietan, prest azaldu gara An- doainen alde lan egiteko”.

Markel Olanoren eta Joseba Egibarren adierazpenak
Enplegu duina lortzea eta lan murgilketa erraztea helburu nagusien artean dutela adierazi zuen Markel Olano Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauta- gaiak. Gipuzkoan behartsuen eta aberatsen arteko diferentziak murrizteko lanean ari direla erantsi zuen: “Une honetan, mundu mailan, Gipuzkoa da diferentzia gutxien duen lurral- dea. Eta hori harro esan behar dugu. Horregatik etortzen zai-

gunean pertsona bat esplotatzai- le edo neoliberalak garela esanez, harro esan behar dugu gure politikak direla une honetan Europako gure inguruan aurre- ratuenetakoak. Eta hori ez da teoria, hori eguneroko lanarekin lortzen ari gara”.

Joseba Egibar sorterrira itzu- li zen. Familia tarteko, maiz etortzen da Andoainera. Baste- roko ekitaldian, GBBko presi- denteak nazio eraikuntza eta gizarte eraikuntza gogoan har- tu nahi izan zituen: “Herri bat ez al da gu guztion etxea? Nor arduratzen da? Udalak, Aldun- diak, Jaurilaritza... eta guk arlo soziala oso presente eduki dugu beti. Zeren eta ezker abertzale- koak non egon ziren Eusko Le- gebiltzarrean oinarritzko erren- ta onartu zenean? Non zeuden? Zertara dedikatzen ziren? Herri bat ez da saltoka eraikitzen, pausoz pauso egiten da. Guretzat nazio eraikuntza eta gizarte eraikuntza txanpon bereko bi aldeak ziren eta dira. Desafioa hor dago. Herri justuagoa egi- teko lan asko dago egiteko”.

Andoaingo EAJ-PNVko hautagaitza

Jeltzaleek zerrenda osoaren berri eman dute, ordezeko postuetan joango direnak barne:

1. Mari Jose Izagirre.
2. Mikel Arregi.
3. Iñaki Egibar.
4. Txibux Ruiz.
5. Imanol Goenaga.
6. Andoni Elozegi.
7. Xole Irigoras.
8. Gorka Artola.
9. Aritz Amondarain.
10. Arantxa Alonso.
11. Koldo Huizi.
12. Ainhoa Elola.
13. Agurtzane Irigoras.
14. Alex Huitzi.
15. Esther Arizmendi.
16. Ramon Carrera.
17. Edurne Brit.
18. Andoni Baltasar.
19. Nerea Arregi.
20. Iñaki Irulegi.

Mari Jose Izagirre. **Aiurri**

Alkategaia: Mari Jose Izagirre

2007tik zinegotzi lanetan ari da Andoainen. Iñaki Egibar (2007) eta Andoni Baltasarren (2011) ondoan egotetik, alderdiko buruzagia izatera igaro zen (2015).

Arregi, Egibar, Izagirre, Olano, Ruiz eta Egibar Basteroko aurkezpenean. **Aiurri**

Buruzagi politikoen babesa

Andoaingo eta Gipuzkoako buruzagien babesa jaso zuen Izagirrek, martxoaren 22ko aurkezpen ekitaldian. Argazkian hiru alkategai ageri dira. 2003an Mikel Arregi izan zen Udal hauteskundeetako irabazlea, ezker abertzalea legez kanpo utzi zuten deialdian. Kargu hartze ekitaldian, ordea, PSE-PP hitzarmenari esker Gabarainek hartu zuen aginte-makila. Lanean erretiroa hartuta dagoela, Mikel Arregi 2019ko hauteskundeetara bigarren postuan aurkeztuko da. Iñaki Egibar 2007an aurkeztu zen alkaltetza, eta orduko hartan EAJ-PNVk ez zituen emaitza onak eskuratu. Biziki maite du Udal politikagintza, eta azken urteotan Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Udaletxean lan politikoa egiten ari da.

Joseba Egibar andoaindarra Gipuzkoako jeltzaleen lider sendoa da. Markel Olanorekin batera, biak Izagirre babestera hurbildu ziren.

Hautes-zerrendako kide gehienak martxoaren 22ko aurkezpen ekitaldira hurbildu ziren. **Aiurri**

Alkatetza lortzea helburu

Maidar Lainez alkategaiak “aniztasuna ordezkatzeko duten pertsonez osatutako taldea” aurkezten dutela adierazi zuen, ostiral arratsaldean Herriko Etxearen parean egin zuen hautes-zerrendaren aurkezpen ekitaldian

Xabier Lasa ANDOAIN

“Lan egiteko gogoz gaude, eta Andoaingo herriak merezi duen lekura eramane nahi dugu. Izan ere, anbizio-erik eduki ez duen EH-Bilduren zortzi urteko go- bernua jasan dugu. ilusioz eta konbikzioz gainekza gator, egoe- ra aldatu eta hobetu daitekeela pentsatzen dugulako. Badauka- gu eskarmentua horretarako”.

Bederatzi emakumek eta zor- tzi gizonezkoek osatzen dute hautes-zerrenda, eta Lainezek aurpegi berriei erreparatzea eskatu zuen: “Ikus daitekeenez, aurpegi berri ugari ageri dira taldean. Era horretan, lehen zazpi postuetan hiru hautagai berri aurkezten ditugu”.

EH Bilduren alternatiba bakarra
PSE-EEren hautagaitza “berri- kuntza, eskarmentua eta ezagu- tza batzen dituen” taldea dela erantsi zuen. Euren ustean EH- Bilduren alternatiba bakarra da. Azkenik, hauteskundeak irabaztera doazela adierazi zuen: “Alkatetza lortu nahi dugulako eta Andoaingo etorkizuna beste

alderdien esku geratzea gerta ez dadin”. Lainezek banan bana aurkeztu zituen zerrendakideak, lehen bederatzien xehetasunak eskainiz:

- Jose Luis Verdasco (41 urte). Ezkondua eta aita. Euskal- duna. Enpresa zientzietan diplomatua, eta administrazio eta enpresa zuzendaritzan lizentziatua. Enpresa priba- tuan lan egiten du, finantza arduradun gisa.
- Txoni Parron (54 urte). Ez- kondua eta haur baten ama. Lan zientzietan lizentziatua, UGTn postu ezberdinetan egon da lanean. Kudeatzaile gisa lanean ari da egun. Ira- ganean Gehituko lehendakaria izan zen. Egun, Donostia- ko Berdintasun Arloko Kon- tseiluko kidea da eta baita Andoaingo Udaleko zinegotzia ere.
- Petri Romero (45 urte). Bi haurren ama. Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzorde- kidea da Oria eskualdetik, eta Andoaingo Udaleko zinegotzia da.

- Oscar Mendo (47 urte). Ez- kondua, aita. Euskalduna. Lanbide Heziketan 2. maila- ko ikasketak dauzka. Garraio eta mezularitzako alorreko enpresa pribatu bateko ad- ministraria da.
- Merche Luis (43 urte). Ama. Magisteritza diplomatua. En- presa pribatuan lan egiten du, zerbitzuen koordinatzaile gisa.
- Raquel Rodriguez (29 urte). Euskalduna. Hautagaitzako kiderik gazteena. Argazki eta laburmetraien arloko irakas- lea da, kamera operario gisa. Independiente gisa aurkezten da zerrendan.
- Raquel Caballero (44 urte). Euskalduna. Geografia eta Historian lizentziatua. Her- naniko zahar egoitzan lan egin izan du. Esklerosi Aniz- koitzarren gaixotasuna jorra- tzen duen ADEMGi elkarteko kidea da.
- Daniel Garcia (71 urte). Ez- kondua eta aita. Jubilatua. Andoaingo Udaleko zinegotzia da egun.

Andoaingo PSE-EEko hautagaitza

Zinegotzi izateko aukera duten hautagaien zerrenda aditzera eman dute sozialistek. Udalgintzan eskarmentua duten Garciak eta Amutxastegik postu sinbolikoak bete dituzte:

1. Maidar Lainez.
2. Jose Luis Verdasco.
3. Txoni Parron.
4. Petri Romero.
5. Oscar Mendo.
6. Merche Luis.
7. Raquel Rodriguez.
8. Raquel Caballero.
9. Daniel Garcia.
10. Patxi Muñoz.
11. Oscar Garcia.
12. Urania Galo.
13. Daniel Fuente.
14. Almudena Lamaza.
15. Marino Rodriguez.
16. Luisa Fuentes.
17. Estanis Amutxastegi.

Maidar Lainez. **Aiurri**

Alkategaia: Maidar Lainez

2011n Estanis Amutxastegiren ondoan hasi zen, zinegotzi lanetan. 2013an bozeramaile izendatu zuten. 2015ean egin bezala, 2019an ere hautagaia izango da.

Luis, Mendo, Parron, Lainez, Verdasco eta Romero aurkezpen ekitaldian. **Aiurri**

Lehen hautagaien profila

Alderdiaren muina, gaurkoz, hiru emakumeren gain dago. Hirurak, gainera, ibilbide luzea osatzen ari dira Andoainen: Maidar Lainez, Ascen Parron eta Petri Romero.

Ascen “Txoni” Parron ohikoa izan da sozialisten hautes- zerrendetan. 2007an, esaterako, zinegotzi akta eskuratu zuen baina karguari muzin egin zion. Haren tokia Daniel Garciak hartu zuen, Maidar Lainezek bereziki estimatzen duen alderdikidea. 2015ean berrirako eskuratu zuen zinegotzi akta, eta baita kargua hartu ere. 2019an hirugarren postua beteko du.

Petri Romero laugarren aurkeztuko da 2019ko hautes- zerrendan, eta jarraian laugarren agintaldia beteko du. 2007an Udal gobernu-ko ardura postuetan aritu zen (Euskara lanskaila). 2011n eta 2015ean, berriz, oposizioan aritu da.



Iruña-Veleiako aztarnategira sartzeko sarbidea. Iruñadeoka

Iruña-Veleiako afera aztergai izango dute Irunberri elkarteak

Elxepuru idazleak hitzaldia eskainiko du apirilaren 7an, "Zergatik ez dute argitu nahi?" izenburupean

Erredakzioa ANDOAIN
Hamar urte bete dira Arabako Iruña-Veleia herrian grafito batzuk aurkitu zituztenetik. Horietan euskarazko hitzak agertzen zirela eta, aurkikuntzaren benetakotasuna defendatzen du. Eta hori izango da, hain zuzen, Andoaingo hitzaldiaren oinarria. 19:15tan hasiko da, Irunberrin.

Arabako Foru Aldundiak eremua itxi eta ikertzaileak denuntziatu zituen. Horren aurkako mugimenduak aurkikuntzaren benetakotasuna defendatzen du. Eta hori izango da, hain zuzen, Andoaingo hitzaldiaren oinarria. 19:15tan hasiko da, Irunberrin.

Haur parkeak estaltzeko esleipenak martxan

Andoaingo Udaleko Tokiko Gobernuak Nafarroa plazako eta Zumea plazako haur parkeak estaltzeko obren hitzarmenak esleitu ditu. Baita Allurralde kiroldegia kanpoaldean egingo duten skatepark-a ere

Erredakzioa ANDOAIN

Nafarroako plazako eta Zumea plazako haur parkeak datozen hilabeteetan estaliko dituzte. Udalak dagoeneko Urbabil enpresari lanak aurrera eramateko hitzarmena esleitu dio. Eurotan, 188.216,71 euroko kontratua da: "Lanak hilabeteko epean hasi beharko dituzte, eta amaitzeko zortzi asteko epea izango dute". Denbora tarte berdina izango du Zut skateparks enpresak, Allurraldeko kanpoaldean skatepark-a eraikitzeko. Azken hori burutzeko hitzarmena 176.745,91 eurokoa da. Leizaur parkea txukundu dute, eta Dr. Huiziko eraldaketa ia amaituta dago.



Iazko udaberrian parkeak estaltzeko parte hartze prozesua zabaldu zuten. AIURRI

8.000 kilo elikagai, Andoaindik Saharara

Hurria-Sahara elkarrekin aurtengo bilketaren emaitza aditzera eman du, eskertza adieraztearekin batera. Igande honetan elkartasuna adierazteko aukera berria izango da, Basteron antolatu duten bertso saiora agertuz

Erredakzioa ANDOAIN

"Elikatu Esperantza" egitasmoaren baitan, Andoaingen 7.950 kilo elikagai bildu dituzte aurtun. Eta horrez gain, 84 litro olio, 59 kilo konpresa eta gaixoak artatzeko mediku materiala. Hori guztia hilabete honetan bertan abiatu da Sahara aldera, hango kanpaldietan bizi duten pobrezia egoera leuntzeko helburuz. Hurria-Sahara elkarrekin elikagaiak eman dituzten "andoaindarrei" eskerrak eman nahi dizkie, baita udalari eta komertzio handi zein txikiri ere eskainitako laguntzagatik eta erakutsitako elkartasun eta eskuzabaltasunagatik".



Martxoan bertan eraman dituzte elikagaiak, Andoaindik Sahara aldera. AIURRI



Saharako haurrak Andoaingen, artxiboko irudian. AIURRI

Oporrak bakean

Saharako haurrak uztailen eta abuztuan hartzeko familia bila dabil Andoaingo Hurria-Sahara elkarteak, "Oporrak Bakean" egitasmoaren baitan. Udan Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetako bizi-baldintzak oso gogorak dira, tenperaturak 50 gradutik gora egin dezake eta ur edangarria lortzea ez da erraza. 8 eta 12 urte arteko haurrak etorriko lirateke Andoaingera. Egitasmoak ahalbidetzen du haurrek mediku errebisioak izan ditzaten, bi hilabetez elikadura egokia izatea eta gure kulturara hurbiltzea. Egitasmoak Andoaingo udalaren laguntza ekonomikoa dauka, beraz, haurren joan-etorriak eta mediku errebisioak ez dute gasturik suposatuko familia hartzaileentzat. Informazio gehiago nahi duenak Udaleko Gizarte Zerbitzueta jo behar du.



Astarbe
943 551 527 Astigarraga

Gaztañaga
943 591 968 Andoain

Larre-gain
943 555 846

Ereñozu-Hernani

Mizpiradi
943 593 954 Andoain

R. Zabala
943 690 774 Aduna

Sarasola
943 690 283 Asteasu

Sagardoa Route
943 336 811 Gipuzkoa

Hotel K10
943 337 357 Urnieta

Amasa-Villabonako Udala
943 692 100

Andoaingo Udala
943 300 830

Urnietako Udala
943 008 000



SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
2019 / 3 / 31 eguerdiko 12:00etan

Ion Beloki
Unai Agirre
Alaia Martin
Unai Muñoa
Aitor Mendiluze
Maialen Lujanbio

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

ANTOLATZAILEAK

Hurria Sahara
S.E.A.D-en lagunen elkarteak

PUNTUKA
BERTSO ESKOLA

LAGUNTZAILEAK

AXA
Asistenzia pertsonala

AIURRI

BELKOAIN
Psikoterapia zerbitzua

urkiola

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats

6.00€

Agirre eta Cano, 111 Akademiako finalistak

Katixa Agirre eta Harkaitz Cano dira Larramendi Bazkunak sustatzen duen literatur lehiaketako finalistak. Akademiakideek iaz argitaratu ziren ‘Amek ez dute’ eta ‘Fakirraren ahotsa’ eleberrien artean hautatu behar dute sariduna


Erredakzioa ANDOAIN
111 Akademia Euskal Herriko literaturazaleen bilgunea da, Beterri-Aiztondotik sustatzen dena. Ia 200 irakurlek parte hartzen dute egitasmoan: liburuak irakurri, iruzkinak bidali eta urtero 111 Akademiaren Saria ematen dute.
2018. urteko liburu onenaren saria nori eman erabakitzeko 111 Akademiak amaitu berri du bigarren bozketa txanda, otsailaren 18an martxan jarri eta martxoaren 17ra arte zabalik eduki duena. Katixa Agirreren *Amek ez dute*, Maite Darcelesen *Bihotzean damagun mundua*, Harkaitz Canoren *Fakirraren*

ahotsa, Alberto Ladron Aranaren *Jainkoen zigorra* eta Xabier Gantzarainen *Zuloa* izan dira lehian bigarren txanda horretan, lehenengo bueltan boto gehien jaso zuten bost obrak, alegia. Bigarren bueltan saridun izendatzeko beharrezkoa den botoen %40 lortu duen lanik ez da izan eta, beraz, boto gehien jaso duten bi obrak aurtengo finalera pasatu dira: Katixa Agirreren *Amek ez dute* eta Harkaitz Canoren *Fakirraren ahotsa*. Akademiakideek bi horien artean hautatu beharko dute sariduna, datorren apirilaren 8ra bitarte.
Akademiak apirilaren amaieran emango du ezagutzera 2018ko

111 Akademiaren Saria. Azken urteotako ohiturari eutsiz saria Andoaingo Bastero Kulturgunean emango dute, maiatzaren hasieran.
Literatur ekimena irekia da, eta euskal irakurle orori zabalik dago. Akademiak gonbite zuzena egin nahi die literaturzaleei: "Zu ere akademiakide izan zaitetke. Jarri gurekin harremanetan: akademia@111akademia.eus".
Azken sarituak
2017 Uxue Alberdiren "Jenisoplin".
2016 Kirmen Uriberen "Elkarrekin esnatzeko ordua".



Amek ez dute. ELKAR



Fakirraren ahotsa. SUSA

Sariduna eta finalista izango dira

Amek ez dute (Elkar)

- Sinopsia. Bi emakume, bi ama gazte: batek (Jade/Alice) bere ume bikiak hil ditu, bere eskuz baineran itota. Bestea, nobelaren narratzailea, bere haurraz erditzerakoan, bat-batean ohartu da ezagutzen duela ama hiltzaile hori, aspaldian haren berri izan ez badu ere.

Fakirraren ahotsa (Susa)

- Sinopsia. Zer egin dohain bat daukazunean? Erabili, munduari eskaini, eta, trukean, inoren arreta jasotzera ohitu. Horixe egiten du Imanol Lurgainek bere ahotsarekin kantagintza konprometitua besarkatu eta frankismoaren kontra borrokan hasten denean.

Flamenko saio ikusgarria

Flamenko musikaren eta dantzaren zaletuek gozatu ederra hartu zuten, martxoaren 21ean Zuena emakume elkarteak eta Andoaingo Udalak Bastero Kulturgunean antolatu zuten saioarekin. Elkartasunezko saioa izan zen, gainera, alarde parekidea sustatzen duen Jaizkibel konpainiaren aldekoa izan baitzen.



AIURRI







Pilar Rodriguez. AIURRI



Arrate Fernandez. AIURRI

Pilar Rodriguez eta Arrate Fernandez aurtengo Laburbiran

Euskarazko laburmetraien zikloan aktorearen eta zuzendariaren lan bana ikus ahal izango dira

Erredakzioa ANDOAIN
Euskara elkarten Topaguneak aurtengo aurkeztu duen euskarazko film laburren XVI. zirkuituan, Arrate Fernandez zuzendariaren "Begi ninen koreografia" laburmetraia eskainiko du.

Beste askoren lanen artean ere, Pilar Rodriguez aktore lanetan agertzen den "Shell Phone" laburmetraia ere ikusi ahal izango da. Ostegun honetan Hernani izusgai izango dira Sandius-terrinen, 18:30ean hasita.

Antia literatur lehiaketa

Literaturzaleen lehiaketa berria martxan da. Azken urteetako joerari eutsiz, gainera, sari potoloak izango dira lehen sailkatuentzat. Haur, gazte eta helduen mailako ipuin lehiaketa da. Lanak euskaraz aurkeztu behar dira, ezinbestean

Erredakzioa URNIETA
Urnieta Udalak On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren deialdi berria martxan jarri du. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea, apirilaren 12an amaituko dena. Lanak Lekaion bertan eskura eman behar dira, edo aukeran posta arrunta erabilia. Helbidea: Lekaiok kultur etxea. San Juan plaza, z/g. 20130, Urnieta. DIN A-4 orrialdeetan aurkeztu behar da lana, alde bakar batean inprimatuta eta lerro arteko tarte bikoitza utziz. Hiru kopia aurkeztuko dira, egilearen arrastorik utzi gabe eta gutunazal itxi batean sartuta. Ipuinak izenburua izan beharko du, eta goiburua erabili ahal izango da.

Gai librea
Ipuinen gaia librea izango da, eta honako baldintzak betetzea ezinbestekoa izango da: Ipuina euskaraz idatzia egotea, beste lehiaketaren batean saririk jaso gabekoa eta argitara eman gabea.



Sari potoloak irabazleentzat

Helduen maila

- Herrikoak nahiz kanpokoak aurkez daitezke lehiaketara.
- Luzera: 8-20 orrialde.
- Sariak:
 - 1. Saria: 1.800 euro.
 - 2. Saria: 1.000 euro.

Gazteen maila

- 12-16 urte artekoentzat.
- Urnietarrek edo bertako ikasleak.
- Luzera: 3-8 orrialde.

Sariak:

- 1. Saria: 500 euro.
- 2. Saria: 300 euro.
- 3. Saria: 150 euro.

Haurren maila

- 12 urtetik beherakoentzat.
- Urnietarra edo bertako ikaslea.
- Luzera: 2-4 orrialde.

Sariak:

- 1. Saria: Tableta.
- 2. Saria: Ebooka.
- 3. Saria: Ebooka.

Saridunak Euskadiko lehiaketan

Aurten ere Andoaingo musikariek parte hartu dute Euskadiko musikari gazteen lehiaketan, eta biak ere saridun izan dira. Jokin Jauregik bigarren saria lortu zuen tronpetarekin, haize metaleko "A" kategorian (15 urtetik gorakoa).
Xabier Ucinек, berri, klarinetearekin lehen saria lortu zuen haize egurrean "B" kategorian (15 urtetik beherakoa). Ucinек berak, aldi berean, The Claris taldearekin bigarren saria eskuratu zuen taldeka egin zuten lehiaketan.



Puntako bertsolariak Basteron

Hurria-Sahara elkarteak eta Punttukak antolatuta, bertso saioa igandean 12:00etatik aurrera

Erredakzioa ANDOAIN
Sahararen alde antolatzen den elkartasunezko bertso saioaren edizio berria igande honetan ospatuko da. Goi mailako bertsolariak hurbilduko dira, hala nola, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Agirre edota Alaia Martin. Eta baita Andoaingo bertsoszaleen artean aski maitatuak diren Unai Muñoa bertso irakaslea eta Ion Beloki bertsolaria. Unai Ormaetxea gaiak jartzen arituko da.



Maialen Lujanbio. BERTSOA.EUS



Xabat Illarregi. BERTSOA.EUS



Joanes Illarregi. BERTSOA.EUS

Xabat eta Joanes Illarregi Marzol bertsolarien jatorri andoaindarra

Nafarroako Bertsolari txapelketako finalean aritu ziren bi anaiak Josune Marzol andoaindarraren semeak dira

Xabier Lasa ANDOAIN
Joanes Illarregi (Leitza, 1999) eta Xabat Illarregi (Leitza, 2001), nor baino nor gazteagoa, maila harrigarria ematen aritu dira Nafarroako bertsolari txapelketan. Sustraiak Andoaian dituzte. Ama bertakoa baitute, Josune Marzol Ormazabal, hain zuzen.
Joanesek bi bertso abestu zituen, finaleko bakarkako ariketan. Gaia: "Amatxia bixitatzea joan zara. Aspaldiko partez, gaur eza-gutu egin zaitu". Ez zuen urrun edukiko iaz Andoaian hil zitzaion Maria Dolores Ormazabal amonaren oroitzapena.
Nere amona orain aspaldi mundu hontan jaio zena, zahar etxea bihurtu zaio azken aldiko kondena.
Astero gisan gaur etorri naiz eskaileretan barrena. Esan du nere izena, badaki Joanes naizena. Besarkada bat eman diot ta egin du irri ozena, eta izan dudana azken aldiko besarkadarik onena (bis)
Eta irria ahoan dauka biok banandu orduko sila batean eseri nahiz ta gelditu bere gertuko. Joan nahi dudana galde egin dit baina egin diot uko. Bizitza honek hainbat puntu ez ditugunak gustuko, nahiz eta jakin hurrengo baten ez naue-lako ezagutuko. Nik esan diot joan da ere guk ez dugula aztuko (bis)

Egiaren aurkako garaipenarekin igoerako ligaxka eskura dago

ESKUBALOIA Urnietako lehen taldea sailkapenaren hirugarren postuan da, bi jardunaldiren faltan



Erlaitz Arrieta UKE taldeko jokalaria, Egiaren aurkako partidán. URNIETAKE

Erredakzioa ANDOAIN Garaipen garrantzitsua urnietarrek etxean lortu zutena, Egiaren aurkako partidán (29-18). Sailkapenean hirugarren postuan daude orain, eta bosgarrenari bi puntuko aldea ateratzen diote. Bosgarren postuan baitago

igoerako ligaxka jokatzeko sailkapenaren muga. Jokatu duten azken partida, emaitzari erreparatuta, erraza izan zela dirudi. Baina markagailuan aurrea hartzea kosta egin zitzairen, bereziki lehen zatian. Azken bi jardunaldiak bizi-bizi datoz.

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA

ESKUBALOIA	
SENIOR MAILA	
GIPIZKOA 1. MAILA	
Urnietá-Egia	28-19
SAILKAPENA	
1 Munttarpe	32 puntu
2 Legazpi	26 puntu
3 Urnietá	25 puntu
4 Eibar	24 puntu
5 Bergara Soraluze	23 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Donibane-Urnietá / Lar, 30	
SENIOR MAILA, NESKAK	
Egia-Leizaran	24-25
SAILKAPENA	
1 Usurbil	6 puntu
2 Munttarpe	2 puntu
3 Egia	2 puntu
4 Leizaran eskubaloia	2 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Munttarpe-Leizaran / Lar, 30	
KADETE MAILA, NESKAK	
SAILKAPENA	
1 Aiala	14 puntu
2 Errotaberri	12 puntu
4 Urnietá	4 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
10:30 Berango-Urnietá / Ig, 31	

Arangoitira irteera

MENDIZALETASUNA Datorren apirilaren 6an 15 kilometro inguruko mendi zeharkaldia egingo dute Zanpatuz mendi elkarteko kideek. Izena emateko epea zabalik dago, datorren apirilaren 2ra arte. Ikasmin Akademian eta Kantoi tabernan eman behar da izena, eta unean bertan ordainketa egin behar da. Bazkideek 5 euro, eta bazkide ez direnek 10 euro.

Luz Ardidenera irteera

ESKIA Alpino, snow edota raketak erabiltzeko aukerarekin, Zanpatuz mendi elkarteko kideek egunpasa ederra egin zuten Luz Ardiden aldean. 32 lagun irten ziren denera, joan zen larunbatean. Eguraldia lagun izan zuten, gainera. Antolatzaileek adierazi dutenez, eskiatzaile guztien artean giro ederra sortu zen egun osoan zehar.

Debako lasterketa

TXIRRINDULARITZA Kadete mailakoen lasterketaren emaitza: 1. Iñaki Errazkin (Donosti Berri) 8. Iker Atxaga (Andoaingo) 35. Ibai Omeñaka (Andoaingo) 44. Mikel Goikoetxea (Andoaingo) 45. Peru Alkain (Andoaingo) 46. Unai Galarza (Andoaingo) 59. Ekain Mitxelena (Andoaingo) 65. Iker Balbas (Andoaingo) 67. Ibai Vela (Andoaingo).

Etengabeko ikaskuntza

IGERIKETA Alebin mailako igerilariek etengabeko ikaskuntzan dihardute. Tolosako igerilekuan, Buruntzaldea IKT taldeko hamasei gaztetxo proba ezberdinetan parte hartzen aritu ziren: Mutilak bizkar estiloan eta librean aritu ziren, eta erreleboka 4x100 metro lau estiloetan. Neskak librean, tximeletan eta bular proban aritu ziren.



AIURRI



ZANPATUZ



ANDOAINGO



BURUNTZALDEA IKT

Hamairugarren garaipena jarraian, Ubitarte zelaian

FUTBOLA Liga amaitzen ari da Euskaldunako lehen taldearentzat, eta igoera esku-eskura dauka

Erredakzioa ANDOAIN

Aritmetika kontua izango da, eta beharbada bi aste barru lor daiteke igoera. Euskaldunako lehen taldea liga ikusgarria egingen ari da. Datu aipagarri asko daude. Askoren artean, etxeko partidaren estatistika: Ubitarte zelaian hamairu partida jarraian irabazi dituzte. Aurkari guztien gainetik pasatzen ari dira, eta etxetik kanpo ere bikain ari dira. Esku-eskura dute igoera.

Euskaldunak azken partidaren kronika argitaratu du webgunean, Santo Tomas Lizoea taldearen aurka 3 eta 1 irabazi zueneko. Bertan irakur daitekeenez, alde handia egon zen bi taldeen jokoaren artean: "Neurketa lehen zatian erabakita geratu zen, andoaindarrak atsedenaldira hiru goleko errentaz joan baitziren". Bigarren zatian lasaiago hartu zituzten gauzak,



Euskalduna. AIURRI

eta aurkariak gola sartzeko aukera baliatu zuen. Asteburuan Irungo San Jose Obrero futbol zelaian jokatu dute, Dunboa Eguzki taldearen aurka. Aste Santu aurreko partida Ubitarten izango da. Igoera giroko partidak iristear dira.

Talaia bidea lasterketa

MENDI LASTERKETA Donostia-Hondarribia trail bezala ezaguna da, 30 kilometroko ibilidea eta 1.300 metroko desnibela duena. Andoaingo eta Urnietako lasterkariek emaitza onak lortu izan dituzte Ulla eta Jaizkibel mendien arteko lasterketan. Jokin Lizeaga irabazle izan da, eta Jon Ugaldek ere maila ona erakutsi izan du. Aurtén Maialen Gurrutxaga bigarren sailkatu da.



AIURRI

Nahikari Garcia Brasil eta Inglaterraren aurkako partidatan



Nahikari Garcia. AIURRI

FUTBOLA Apirilaren 1etik 10era Espainiko selekzioarekin arituko da Nahikari Garcia urnietarra. Prestaketa saioez gain, bi partida jokatu ditzuzte. Apirilaren 5ean Espainia-Brasil Don Benito herrian, eta apirilaren 9an Ingalterra-Espainia Swindon herrian. Real Sociedad taldeko aurrelariak gertu du, beraz, aurtengo Mundu txapelketan jokatzeko aukera.

Sailkapena

Andoaindarrak eta urnietarrak: Gizonezkoak: 4 Ugalde, Jon 2:22:03 5 Amantegi, Igor 2:23:13 20 Piñón, Ivan 2:38:47 82 Telletxea, Iker 2:57:10 86 Muñoz, Iban 2:58:35 132 Otaño, Urko 3:07:24 166 Iginitz, Aritz 3:14:04 311 Ayerza, Eñaut 3:39:37 398 Fernandez, Maikel 4:04:19 Emakumezkoak: 2 Gurrutxaga, Maialen 2:59:11 4 Jauregi, Ainhoa 3:04:46

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ARETO FUTBOLA

FUTBOLA		
PREFERENTE MAILA		
EMAITZA		
Urnietá-Touring		0-1
Euskalduna-Santo Tomas Lizoea		3-1
SAILKAPENA		
1	Euskalduna	65 puntu
2	Touring	55 puntu
3	Mundarro	51 puntu
4	Baskonia	49 puntu
5	Billabona	44 puntu
13	Urnietá	25 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK		
15:30 Dunboa-Euskalduna / Lar, 30		
16:00 Baskonia-Urnietá / Lar, 30		
ERREGIONAL MAILA		
KOPA		
SAILKAPENA		
1	Irauli	6 puntu
2	Antigua	6 puntu
4	Euskalduna	4 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK		
16:00 Antigua-Euskalduna / Ig, 31		
GORENGO MAILA, NESKAK		
IGOERA FASEA		
EMAITZA		
Urnietá-Intxaurdi		2-6
SAILKAPENA		
1	Intxaurdi	18 puntu
2	Urnietá	15 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:30 Aloña Mendi-Urnietá / Lar, 30		
KOPA		
EMAITZA		
Bergara-Euskalduna		4-5
SAILKAPENA		
1	S.Tomas	15 puntu
2	Euskalduna	10 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
--:-- Euskalduna-Trintxerpe / Lar, 30		
JUBENIL MAILA		
OHOREZKOA		
Euskalduna-Aloña Mendi		2-3

SAILKAPENA		
1	Mondragon	53 puntu
12	Euskalduna	33 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
16:30	Iltitxa-Euskalduna / Lar, 30	
KOPA		
	Urnietá-Mundarro	3-0
	Sanse B-Euskalduna	1-0
SAILKAPENA		
1	Usurbil	19 puntu
2	Sanse B	14 puntu
3	Urnietá	14 puntu
7	Euskalduna	2 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK		
15:30	Euskalduna-Baskonia / Lar, 30	
KADETE MAILA, OHOREZKOA		
EMAITZA		
	Martutene-Euskalduna	2-1
ASTEBURUKO PARTIDA		
11:45	Euskalduna-Danena / Lar, 30	
KADETE MAILA, NESKAK		
KOPA		
	Euskalduna-Mundarro	0-1
	Amara Berri-Urnietá	4-1
SAILKAPENA		
1	Mundarro	22 puntu
3	Euskalduna	13 puntu
8	Urnietá	3 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK		
--:	Danena-Euskalduna / Api, 7	
--:	Urnietá-Luberri / Api, 7	
KADETE MAILA, MUTILAK		
KOPA, 5. MULTZOA.		
	Urnietá A-Kostkas B	1-2
KOPA, 7. MULTZOA.		
	Idiazabal A-Urnietá B	3-2
	Euskalduna-Usurbil	2-3
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:30	Urnietá B-Euskalduna / Lar, 30	
ARETO FUTBOLA		
EMAITZA		
	Euskalduna-Gaintxu	7-4
ASTEBURUKO PARTIDA		
22:00	Samaniego-Euskalduna / Ost, 29	

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 28

URNIETA Plenoa
Ez ohiko plenoa. *13:30, Udaletxea.*

ANDOAIN Plenoa
Udal batzaraldian aztergai ugari. *19:00, Udaletxea.*

OSTIRALA 29

ANDOAIN Aurkezpena
Udal hauteskundeen hautagaitzaren aurkezpena egingo du EH Bilduk. *19:00, Bastero.*

LARUNBATA 30

ANDOAIN Tailerra
Ekonomia feminista, Martxoak 8ko egitarauaren baitan. *09:30, Urigain.*

ANDOAIN Jardunaldia
Elkarbizi elkartearen eta Oreki fundazioaren eskutik, "Bizikidetzaren aldeko memoria" jardunaldia Etiker, Gogoan, Foro Soziala, Argituz eta Zabaltzen ekimenen parte-hartzearekin. *10:30. Urigain.*

ANDOAIN Ekitaldia
Ipar Haizeak antolatuta, edukiontzi grisari ongi etorria emateko ekitaldia. Taldeko argazkia atera nahi dute. *12:00. Bastero.*

ANDOAIN Ikuskizuna
"Go!Azen 5.0." ikuskizuna. *17:00, 19:00. Bastero. Agortuta.*

IGANDEA 31

ESKUALDEA Ordu aldaketa
Udako ordutegira egokitzeko ordu aldaketa. *02:00tan 03:00ak izango dira.*

URNIETA Korrika
Korrikaren etorrera girotzeko jarduera ezberdinak iragarri dituzte. San Juan plazan pintxoez eta sagardoaz gozatzeko aukera izango da. *11:30, Kalejira herrigunean. 12:00, Egape DTren saioa plazan.*

ZINEMA

	ANDOAIN BASTERO 70 binladens Igandea, 31: 19:30. Astelehena, 1: 19:30; 22:00. La favorita Larunbata, 6: 19:30; 22:00.	Igandea, 7: 19:30. Astl, 8: 19:30; 22:00.	
	URNIETA SAROBE El reino de los elfos: Igandea, 31: 17:00.		

SINOPSISIA



70 binladens
Zuz.: Koldo Serra. **Herr.:** Espainia (2018). **Generoa:** Thrillerra. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Emma Suárez, Nathalie Poza, Hugo Silva, Bárbara Goenaga. **Iraupena:** 100 minutu.

Mailegua eta lapurreta, biak batera

Raquel (Emma Suarez) egoera zailan dago, eta 24 orduko epean 35.000 euro behar ditu. Bere azken itxaropena mailegua lortzea da. Akordioa ixtear dela bi lapur sartuko dira banketxean (Nathalie Poza eta Hugo Silva). Egoera are gehiago zaildu zaio Raquel protagonistari. Kosta ala kosta, banketxeak utzitako diruarekin atera behar baitu.

Peto potea eta afaria, Korrikaren atariko hitzorduak Andoainin

Peto-potea apirilaren 4an
18:30 Bastero plazatik abiatuko da, eta Kale Nagusian zehar Zumea plazaraino iritsiko da. Bidean Juanita Alkain plazan eta Zubiaurre etxearen parean geldialdiak egingo dituzte.
20:00 Lekukoa eramango dutenei petoa emango zaie.

Herri afaria apirilaren 12an
Korrika afaria antolatu dute Basteron. Txartelak salgai daude 15 eurotan, Andoingo AEK euskaltegian eta Ernaitza Liburutendan. Txartela erosteko azken eguna, apirilaren 7a izango da.



LARUNBATA 6

ANDOAIN Musika
Lehenengo aldiz musika banden topaketa egingo da herrian. Andoingo udal musika eskolako bandak Deba eta Legazpiko bandak gonbidatu ditu. *12:30, Bastero.*

ANDOAIN Erakusketa
"Herria herri egin zuten emakumeak" argazki-erakusketa ikusteko azken eguna. *Ohiko ordutegia, Bastero.*

URNIETA Antzerkia
"Los intocables" antzezlan, Ados teatroen eskutik. Sarrerak apirilaren 1etik aurrera salgai. *19:00, Sarobe. 19:00. 5 euro.*

IGANDEA 7

ESKUALDEA Dantza
"Nudos", Da-te danza konpainiaren ikuskizunak bizitzan izandako esperientziek uzten dituzten ondorioak azaleraziko ditu. Dantzaren eta hiru dantzariaren interpretazioaren bidez. *17:00, Bastero. 4 euro.*

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Anje
Martxoaren 25ean urtetxo bat bete zenuen! Segi bixi-bixi! Muxuak familiaren partetik.



ANDOAIN Andoni
Martxoaren 30ean 15 urte beteko dituzu, Andoni. Zorionak eta muxu handia etxekoan partetik.



URNIETA Joxe eta Mañoli
1969-2019. Xabardeiko Joxe eta Mañoli, 50 urte elkarrekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehatzuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehatzuz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 30 eta igandea 31
DIAZ: Kale Nagusia, 19.
943 592 057. Andoain.

URNIETA

Larunbata 30 eta igandea 31
AIZPURI: Latxunbe berri, 11.
943 336 077. Urnieta.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

UDAL HAUTESKUNDEAK



EHBILDU

EH Bilduren aurkezpen ekitaldia

Hautes-zerrendaren aurkezpen ekitaldian Basteroko ekitaldi aretoan egingo dute, ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan hasita. Ohar bidez aurreratu dutenez, zerrenda "hamar emakume eta hamar gizonez osatutakoa da. Guztiak andoaindarrak dira, eta, sektore sozial, auzo eta belaunaldi ezberdinetakoak. Hautagaitza plurala osatu dugu. Udal gobernuan lanean jarraitzeko pentsatutako hautagaitza da, gobernu bokazioa duena. Andoni Alvarez alkategaiarekin batera, gobernu lanetan esperientzia duten pertsonak aurkeztu dira, baina baita haize berriak ekarri eta begirada berri bat izango duten hautagaiak ere".



AHAL DUGU

Podemos eta IU-EB elkarrekin

Andoingo Podemos Ahal Duguren hautagaitza egun ordezkaritza duten Ganemos eta Irabazi alderdien oinordekoa izango dela esan daiteke. Izan ere, maiatzaren 26an elkarrekin aurkezteko akordioa lortu baitute.



URNIETAKOUDALA



AIURRI



AIURRI



AZKEN BERBA

JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Progreack


Astebeteko tartean igaro dira inauteriak eta martxoaren 8a. Eta biak, nolabait, lotzen dituen gertaera ekarri nahi dut gogora. Nire belaunaldiko eta gehienbat nire ondorengo belaunaldiko gizonezko eta emakumezko gehienek adin txikiko seme-alabak dituzte, eta guztiek ere inauteri festan parte hartu dute. Seme-alabak matrikulatuta ditudan ikastetxean auzolanerako deialdia egin zuten, Ostegun Gizeneko ikuskizuna prestatzeko zeregin ugari baitzeuden: haur txikien jantzien osagarriak prestatu, paper luze eta zabaletan marrazkiei forma eman eta koloreztatu... Plastika ikasgaiko eskulanak, guzti-guztiak. Materiala ikastetxearen kontura, eta eskulana boluntarioki aurkeztu ziren gurasoen kontura. Gure familiaren ikastetxean, bi asteetan zehar edo, serio-demonio aritu ziren lanean: 14:30ak aldera hasi eta 16:20ak arte, etenik gabe.

Ikastetxearen eta boluntarioen artean koordinazio lanak egiten aritu dira hainbat irakasle. Inauteriak igarota, haietako bati galdera bota nion. Jakinmina asetu nahian: “-Aizu, esango al zenidake asteotan lanean aritu diren boluntario horietatik guztietatik zenbat izan diren emakumezkoak, eta zenbat gizonezkoak?”. “-Guzti-guztiak emakumezkoak, gizon bakarria izan ezik”.

Detaile bat da, zer pentsatua ematen duen datu estatistikoa. Ondorioa hau da: Gaur gaurkoz, ikastetxeari lotutako zeregin 'extra' horiek amari lotzen zaizkio. Inauterietako moztaroen osagarriak prestatzea, kartulinak moztu eta forma ematea, marrazkiak egin eta koloreztatzea... amaren kargu doaz. Aitari horrelakoetan parte hartzea ez zaio burutik pasa ere egiten.

Eta, bitartean, aitatxo asko *progrearena* egiten.

AZKENA



Gailu mugikorretarako egokituta dago www.aiurri.eus webgune berria. AIURRI

Aiurri.eus webgune berria martxan da

Martxoaren 20an Aiurriko webgunea goitik behera eraberrituta agertu zen. Tokikom toki komunikabideen bateraguneak duen Plataforma digitalean murgildu da Aiurri, CodeSyntax enpresak garatu duena. Gailu mugikorrei begira diseinatuta dago

Erredakzioa ANDOAIN

Bertsio berria gailu mugikorretan kontsumitzeko diseinatuta dago. Hots, tablet eta smartphoneetatik eroso informatzeko. Azken aldiko datu guztien arabera, internet sareko audientzia handiena gailu horietan baitago. Aiurri.eus gailu horietatik errepertzen hasita, eta aurreko

webgunearekin alderatuta, aldaketa handia dago albisteen aurkezpenean eta nabigazioan.

Teknikoki, bestalde, aldaketa handiak egon dira. Aurrerantzean kazetariari albisteak mugikorretik zuzenean argitaratzeko aukera nabarmen erraztuko zaio.

Aurrerapauso guztiak tokiko hedabideen baitan ulertu behar

dira. Aiurri eta Euskal Herriko beste hamasei tokiko hedabide murgildu baitira egitasmo berritzailean. Hilabeteetako prozesua izan da, eta Aiurriko erredakzio taldeak bidelagun izan ditu Tokikom tokiko hedabideen erakundea eta Codesyntax enpresa. Plataforma digitala erabiltzen ari diren hedabideen artean aur-

ki daitezke Debagoienako Goiena, Lasarte-Oriako Txintzarri edota Usurbilgo Noaia astekariak.

Tokikomentsat estrategikoa izaten ari da Plataforma digitalaren zabalkundea: Gailu mugikorren bidez informazioa zabaltzeko, pantaila aniztasunera egokitzeko, publizitate eremu berrietara iristeko, multimedia aukerak biderkatzeko, parte hartzean sakontzeko eta kazetaritza digitalean murgiltzeko.

Plataforma berriaren erabilerekin, bisitaldi kopurua nabarmen areagotu zaie hedabideei. Tokikomek esku artean dituen datuen arabera, “plataforma horren gainean lanean diharduten hedabideak sektoreko interneteko batezbesteko hazkundearen gainetik hazi dira”. Aiurri.eus webgunearen xedea ere hori litzateke, datozen hilabetei begira.

Urteak dira Aiurri.eus webgunea martxan dagoela. Horrez gain, Facebook eta Twitter sareetan oso aktiboa da Aiurriren ekimena. Instagram sarean ere lehen urratsak ematen ari da, orain arte proba modura. Bestalde, denen eskura daude Aiurriko urteotan Youtube bidez zabaltu dituen 2.850 bideoak eta Flickr bidez partekatu dituen 61.000tik gora argazkiak. Sare sozialen erabilerarekin, gainera, euskalduna ez den kontsumitzailea ere Aiurriko edukietara hurbiltzen ari da.

Webgune berriak atal berriak sortzeko aukera handiak eskaintzen ditu, datozen hilabeteetan gorpuztuko direnak. Besteak beste, komunitatearen atala.

Webgunearen eraberritzearekin, Andoainen eta Urnietan erreferentziatzeko webgune izaten jarraitu nahi du Aiurrik.



AIURRI HEDABIDEAK
FACEBOOK

Aiurrik ulean uneko albisteak, argazkiak eta bideoak zabaltzeko gehien erabiltzen duen informazio orrialdea, Twitterrekin batera.



@AIURRI
TWITTER

1744 jarraitzaile ditu @aiurri kontuak. Noaia astekariarekin batera, Aiurri da eskualdean irismen gehien duen tokiko hedabidea.



AIURRIKLIK
INSTAGRAM

Proba modura zabaltu berri den kontua da Aiurriklik. Nagusiki, Andoain herriari loturiko irudiak. Astez aste irismen handiagoa lortzen ari da.



AIURRI
YOUTUBE

Duela hamaika urte abiatutako ekimena, bideoak zabaltu ahal izateko. Dagoeneko 2850 bideo ikusgai daude. Une honetan 659 erabiltzaile harpidetuta daude.